

Euskal AEko hotel-establezimenduetako bidaiari-sarrerak %12,7 gehitu ziren 2016ko urtarrilean

Gaualdiak %15,0 gehitu dira aurreko urteko hil beraren aldean

2016ko urtarrilean, 141.785 bidaiari-sarrera erregistratu ziren Euskal AEko hotel-establezimenduetan, aurreko urteko hil berean baino 16.001 gehiago, %12,7ko gehikuntza, Eustaten datuen arabera. Bidaiari-sarrerak %24,4 gehitu ziren Gipuzkoan, %12,1 Araban, %4,1 Bizkaian.

Gaualdiak, 2016ko urtarrilean, 252.143; aurreko urtekoan baino 32.901, %15,0 gehiago. Gaualdiak ere urte arteko bilakaera positiboa izan dute hiru lurraldeetan: Gipuzkoan %26,0, Araban %17,2, Bizkaian %6,1.

1. taula.- Euskal AEko hotel-establezimenduetako gaualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2016ko urtarila

	Gaualdiak		Bidaiarien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Betetze-maila (%)			
	2016/01	m/m-12 (%)	2016/01	m/m-12 (%)	2016/01	2015/01	plazaka		gelaka	
							2016/01	p.p.*	2016/01	p.p.*
EUSKAL AE	252.143	15,0	141.785	12,7	1,78	1,74	31,4	3,6	40,6	4,3
Estatukoak	178.623	16,5	103.333	13,0	1,73	1,68	-	-	-	-
Atzeritarrak	73.520	11,5	38.452	12,0	1,91	1,92	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	37.868	17,2	20.981	12,1	1,80	1,73	29,3	4,3	39,6	6,3
Estatukoak	31.067	22,0	17.256	14,1	1,80	1,68	-	-	-	-
Atzeritarrak	6.801	-0,6	3.725	3,8	1,83	1,91	-	-	-	-
Vitoria-Gasteiz	30.910	22,0	16.484	13,5	1,88	1,74	31,9	5,5	44,9	8,8
BIZKAIA	113.537	6,1	63.574	4,1	1,79	1,75	28,9	0,7	38,6	0,7
Estatukoak	80.533	6,9	46.685	4,1	1,73	1,68	-	-	-	-
Atzeritarrak	33.004	4,3	16.889	4,0	1,95	1,95	-	-	-	-
Bilbao	78.181	5,0	42.422	1,9	1,84	1,79	33,1	0,7	42,8	0,1
GIPUZKOA	100.738	26,0	57.230	24,4	1,76	1,74	36,0	7,3	43,7	8,3
Estatukoak	67.023	27,6	39.392	25,0	1,70	1,67	-	-	-	-
Atzeritarrak	33.715	22,9	17.838	23,0	1,89	1,89	-	-	-	-
Donostia / San Sebastián	60.851	18,8	34.093	18,2	1,78	1,78	40,1	5,8	47,0	6,5

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea


Iturria: Eustat. Establezimendu turistikoko hartzaileen inkesta

Estatuko bidaiariak %13,0 gehitu dira aurreko urteko urtarrilaren aldean, atzeritarrak berdintsu, %12,0. Araban estatukoak %14,1 gehitu dira, atzeritarrak %3,8. Bizkaian estatukoak %4,1 gehitu eta atzeritarrak %4,0. Gipuzkoan estatukoak %25,0 gehitu, atzeritarrak %23,0.

Batez besteko egonaldia, urtarilean, 1,78 egun, 2015ekoan 1,74 zelarik. Araban lehengo urteko 1,73 egunetik aurtengo 1,80ra luzatu; Bizkaian 1,75etik 1,79ra luzatu; Gipuzkoan 1,74tik 1,76ra luzatu.

Plazakako betetze-maila ehuneko 3,6 puntuz handitu da Euskal AE osoan, 2015eko urtarileko %27,8tik aurtengo %31,4ra. Araban ehuneko 4,3 puntuz gehitu da, 2015eko urtarileko %25,0tik aurtengo %29,3ra. Bizkaian ehuneko 0,7 puntuz gehitu da, 2015eko urtarileko %28,2tik aurtengo %28,9ra. Gipuzkoan ehuneko 7,3 puntuz gehitu, 2015eko urtarileko %28,7tik aurtengo %36,0ra.

Euskal AEko hotel establezimenduen okupazio-mailaren eboluzioa lurralde historikoaren arabera (%)



Gelakako betetze-maila ehuneko 4,3 puntuz gehitu da Euskal AE osoan, %40,6ra. Araban ehuneko 6,3 puntuz gehitu, %39,6ra; Bizkaian 0,7z, %38,6ra; Gipuzkoan 8,3z, %43,7ra.

Hotel-okupaziorik handienak, plazaka, urtarilean Donostian (%40,1), Arabako Errioxan (%39,3), Gipuzkoako kostaldean (%38,2).

Asteke eguna aintzat hartuta, 2016ko urtarilean, Euskal AE osoan, plazakako okupaziorik handiena (%40,9) aste-bukaeretan; %26,9 lanegunetan.

Landa-ostatueta sarrerak %28,5 gehitu dira eta gualdiak %25,4 urtarrilean

Euskal AEko landa-ostatueta 4.511 bidaiari-sarrera erregistratu ziren urtarrilean, aurreko urteko hil beraren aldean %28,5 gehiago. Araban %37,0ko gehikuntza, Bizkaian %54,3, Gipuzkoan %14,6. 460 atzerritar sarrera izan genituen, %+94,1 aurreko urtekoen aldean eta sarrera guztien %10,2. Estatuko bidaiarien sarrerak %23,8 gehitu ziren.

Euskal AEko landa-establezimenduetan urtarrilean 10.867 gualdi erregistratu ziren, aurreko urteko hil beraren aldean %+25,4. Araban %27,2ko gehikuntza, Bizkaian %34,2koa; Gipuzkoan %20,4koa.

Plazakako betetze-maila, %10,2, ehuneko 2,2 puntu gehiago 2015eko urtarrilean baino. Araban ehuneko 2,0 puntu gehiago, betetze-maila %10,4. Bizkaian betetze-maila %9,4, ehuneko 2,5 puntu gehiago 2015eko urtarrilaren aldean; Gipuzkoan 2,1 puntu gehiago, %10,6.

Bidaiariko batez besteko egonaldia laburtu egin da Euskal AE osoan, 2015eko urtarrilaren aldean: duela urtebete 2,47 egun; aurtengoan 2,41.

2. taula.- Euskal AEko landa-establezimenduetako gualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. 2016ko urtarrila

	Gualdiak		Bidaiarien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Plazakako betetze-maila (%)	
	2016/01	m/m-12 (%)	2016/01	m/m-12 (%)	2016/01	2015/01	2016/01	p.p.*
EUSKAL AE	10.867	25,4	4.511	28,5	2,41	2,47	10,2	2,2
Araba/Álava	2.387	27,2	981	37,0	2,43	2,62	10,4	2,0
Bizkaia	2.990	34,2	1.279	54,3	2,34	2,69	9,4	2,5
Gipuzkoa	5.490	20,4	2.251	14,6	2,44	2,32	10,6	2,1

p.p.* = aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tf: 945 01 75 62

ETH-Euskal AEko establezimendu turistiko hartzaileen inkestari buruzko prentsa-ohar gehiago

ETH-Euskal AEko establezimendu turistiko hartzaileen inkestari buruzko datu-bankua